

Datu sarekada, norentzat?



IRATI ELORRIETA
IDAZLEA



PAULA ESTÉVEZ

Ordena (natural) baten bila atera dira mundura. Bidaletara eramanenez mundua neurtzeko, sailkatzeko, finean ordenatzeko kutxak, maletak, trepetak, metodoak, patroiak, hitzak. Eta grina nekaezin horretan, zer den jakingura, pertsonen gorputzen ezau-garriak neurtzen eta sailkatzen ere hasi dira: ilearen, begien, azalaren koloreak deskribatzen eta katalogatzen.

XVIII. mendeko gizon europar haien neurketek beste gizon europar batzuek arraza kontzeptua asmatzeko materialer, zenbakiz, frogez hornitu zituzten. Koloreen izenen arabera ondorioztatu eta banatu ziren izaera kontuak. Kategoriatu kontuak bihurtu zirenak, banatzen zuenaren interesen arabera. Nor gehiago, nor gutxiago. Berdinak ginela baina ez ginela berdinak justifikatzeko primeran zetorren kontzeptua. Neurketak egin zituztenetako batzuk beren deskribapen zehatzetatik ateratako ondorioekin ados egon edo ez: Hor zeuden datuak. Eta datuekin zer egin, ez du derrigor erabakitzen datuak bildu dituenak. Ondo sar dezagun hau kaskoan.

Tanta bat handik, beste bat hemen-dik, Txinako plan digitalaren soinuak heldu zait azken aldion. Gizartea hobe-

to ordenatzeko sistemak probatzen ari omen dira. Kreditu sozialaren ideiarekin ordenatu nahi dute eguneroko bizitza. Teknologia definitu nahi du Txinan zein biztanle saritu eta zein zigortu. Semaforoa gorritz gurutzatzen duenaren aurpegia identifikatzen du kamerak, dagozkion izen-abizenak eta nortasun agiriko zenbakia erakusten ditu. Aurpegi-neurketak egiteko programak garatzen ari diren informatikari gazteek inongo espanturik gabe egiten dute beren lana.

Tradizio luzea du datuen bilketa, konparaketa, multzokatze, sailkatze eta horren guztiaren ondorio diren kategorizazioak. Zientziaren eskutik, ehundaka urteko praktika. Digitalizazioak are sublimatu egiten dituen gaitasunak dira. Badakigu kategoriak sortzeaz gain, milioika jenderen hilketa eta erbestertzea arrazoitu duela arrazaren ideiak.

Guretik begiratuta, ikara eragiten duen kontrol-gizartea izan daiteke Txinatik heltzen den irudi hori. Baina nori inporta zaio. Guk uste dugu teknologia gure onurarako erabiltzen dakigula eta gure bizitzak ordenatzen laguntzen diguten aplikazioak instalatzen ditugu telefonoetan. Batzuek gaueko atsedena dokumentatzeko beharra dute, beste ba-

tzuek akaso esnea erostea edo email bat bidaltzea gogoraraziko dien zereginen-managerra. Denentzako dago zerbait. Lagun batek bere alkohol kontsumoa behatzen, analizatzen eta kontrolatzen laguntzen dion aplikazioa erakutsi dit. Aplikazioak diskrezioa eta oinarri zientifikoa izatea saltzen du. Hala izango da. Baina bizitza estiloa hobetzeko promesaren trukean gure daturik intimoenak erakusten ari garelako begitandu zait.

Dena ordenatzeko grina, datuen bidez ikusgarri eta ulergarri egitekoa, dena optimizatzeko, arrazionala izan daiteke. Arrazionaltasuna denerako neurria ez dela frogatzen du horrek niretzako. Arrazoiak eta telefonoa noizean behin itzalita, hobeto gaude. Bidaltzea ahaztu zaidan email zeharo garrantzitsua hori, beharbada, ez zen horren garrantzitsua. Urtea bukatu baino lehen erabaki nuen nire to-do zerrenda tradizionala aurten ere ez egitea. Asmo gehienak ez nituen inoiz betetzen eta helburuen presiorik gabe, hobeto atera ziren gauzak 2018an. Salbuespena: garbiketa digitala egiteko aholkua jarraitzeko xedea hartuko dut. Pasahitz berriak jarri, onak, eta haiek administratzeko programa bat erabiltzen hasi. ●